

**Batzordeko idazkaria, Josune Albizua Urrutikoetxea. Ontzat emana, batzordeko lehendakaria, Gloria Sánchez Martín**

**La secretaria de la comisión, Josune Albizua Urrutikoetxea. Visto bueno, la presidenta de la comisión, Gloria Sánchez Martín**

\*\*\*

\*\*\*

**Jaurlaritzak euskararen erabileraren normalizazioaren alorrean daraman jarduera politikoari buruz** (Batzordeak onetsitako ebazpenak)  
(10/11.08.00.0018)

**Sobre la actividad política que desarrolla el Gobierno en el ámbito de la normalización del uso del euskera** (Resoluciones aprobadas por la comisión)  
(10/11.08.00.0018)

Mahaia, 2014ko maiatzaren 27ko bileran, agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordeak onetsitako ebazpenak.

La Mesa, en su reunión del día 27 de mayo de 2014, ordena la publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco de las resoluciones aprobadas por la Comisión de Cultura, Euskera, Juventud y Deporte.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordeak, 2014ko apirilaren 14an egindako bilkuran, eztabaida monografikoa egin ondoren Jaurlaritzak euskararen erabileraren normalizazioaren alorrean daraman jarduera politikoari buruz, bai eta aurkeztutako proposamenei buruz, ebazpen batzuk onetsi ditu, zeinen testua jasotzen baita ziurtagiriarekin batera doan eranskinean.

La Comisión de Cultura, Euskera, Juventud y Deporte, en la sesión celebrada el día 14 de abril de 2014, tras el debate monográfico sobre la actividad política que desarrolla el Gobierno en el ámbito de la normalización del uso del euskera, así como de las propuestas formuladas, ha aprobado las resoluciones cuyo texto se transcribe en el anexo de la certificación adjunta.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da batzordeko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2014ko apirilaren 14an.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta de la comisión, en Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 2014.

**Batzordeko idazkaria, Jesús María Zaballos de Llanos. Ontzat emana, batzordeko lehendakaria, Lur Etxeberria Iradi**

**El secretario de la comisión, Jesús María Zaballos de Llanos. Visto bueno, la presidenta de la comisión, Lur Etxeberria Iradi**

#### ZIURTAGIAREN ERANSKINA

#### ANEXO A LA CERTIFICACIÓN

#### EBAZPENAK, JAURLARITZAK EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOAREN ALORREAN DARAMAN JARDUERA POLITIKOARI BURUZKO EZTABAIDA MONOGRAFIKOAN ONETSITAKOAK

#### RESOLUCIONES APROBADAS EN RELACIÓN CON EL DEBATE MONOGRÁFICO SOBRE LA ACTIVIDAD POLÍTICA QUE DESARROLLA EL GOBIERNO EN EL ÁMBITO DE LA NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA

1. Gurasogaien hizkuntza-ohiturak moldatzeko erraztasunak ematea, eraginkortasunez laguntzeko euskara familian transmititzeko helburua lortzen.
2. Eusko Legebiltzarrak Euskadin bizi diren herritar guztien eskubideak eta askatasuna errespetatzen dituen hizkuntza-politika, hizkuntza-errealitatea eta guztion eskubideak kontuan hartzen dituen, defendatzen du.
3. Eusko Legebiltzarrak aintzat hartzen du euskara sustatu, garatu eta bultzatzeko lan egiten duten erakundeen jarduera, besteak beste, Euskaltzaindia, Euskararen Aholku Batzordea, Etxepare Institutua edo euskal unibertsitateak, eta

1. Facilitar la adaptación de las costumbres lingüísticas de los futuros padres y las futuras madres para contribuir eficazmente al objetivo de la transmisión del euskera en la familia.
2. El Parlamento Vasco defiende una política lingüística respetuosa con los derechos y la libertad de todos los ciudadanos que viven en Euskadi, que tenga en cuenta la realidad lingüística y los derechos de todos.
3. El Parlamento Vasco valora la actuación de las instituciones que trabajan por el fomento, desarrollo y promoción del euskera, como Euskaltzaindia, el Consejo Asesor del Euskera, el Instituto Etxepare o las universidades vascas,



- animatu egiten ditu euskara pixkanaka ezartzeko eta normalizatzeko lanean jarrai dezaten.
4. Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio:
- Identifika ditzala euskararen arnasa-guneak eta beraien sustapenerako planak egin ditzala, babesteko neurriak ezartzearekin batera.
5. Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio:
- Herri-administrazioetan eta Jaurlaritzaren mendeko erakundeetan euskararen arnasa-guneak sortu ditzala.
6. Eusko Legebiltzarrak aitortzen du euskarak azken 30 urtetan izandako bilakaera. Izan ere, gizartearen ahaleginari eta herri-aginteen jarduerari esker, euskaldunen kopurua 14,5 puntu hazi da azken 30 urteotan, bereziki gazteen artean (30 urteotan 20 urtetik beherako euskaldunak % 20 izatetik % 70 baino gehiago izatera pasatu da), eta erabilera ere, nahiz eta era apa-lagoan, hazi da (15 urtetik gorako herritarrek 1991n baino % 7 gehiago erabiltzen dute euskara). Hazkunde hori batez ere eremu formale-tan gertatu da.
7. Euskarak 30 urteotan izan duen hazkundera gerta dadin, ezinbestekoa izan da, beste faktore-aren artean, marko juridiko egoki bat izatea. Marko juridiko horren oinarri nagusiak dira herritarrek euskara ezagutu eta erabiltzeko du-ten eskubidea, batetik, eta herri-agintee-ek esku-bide hori bermatzeko duten obligazioa, bestetik. Eusko Legebiltzarrak uste du Euskararen Legea izan dela, hain zuzen ere, hori ahalbidetu duen tresna eta, beraz, etorkizunerako ere lanabes egoki eta baliozkoa dela.
8. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala:
- Hizkuntza politikaren zeharkakotasuna sendotzen.
  - Euskal gizartearen pluraltasuna errespetatzen.
  - Herritarrek bizitzako eremu guztietan (lanean, gizarte-ean, eskolan edo familian) hizkuntza hautatzeko duten askatasuna bermatzen, EAEko errealitate soziolin-guistiko ezberdinen errespetuan, inork hizkuntzagatik inolako diskriminaziorik jasan ez dezan.
9. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio foru-aldundiekin eta udalekin lankidetz-a, Hakobaren eskutik, ahalbidetzen jarrai dezan,
- entre otras, y les anima a seguir esforzándose por su progresiva implantación y normalización.
4. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que:
- Identifique los circuitos vitales del euskera y elabore planes para su fomento, junto con el establecimiento de medidas de apoyo.
5. El Parlamento insta al Gobierno Vasco a que:
- Cree circuitos vitales del euskera en las admi-nistraciones públicas y los organismos depen-dientes del Gobierno.
6. El Parlamento Vasco reconoce la evolución que ha tenido el euskera en los últimos 30 años. Y es que el número de euskaldunes ha subido 14,5 puntos en esos 30 años, especialmente entre los jóvenes (en 3 décadas, el 20 % de jóvenes euskaldunes menores de 20 años ha pasado a ser un más de un 70 %), y en cuanto al uso, de modo más humilde, también se ha incrementado (los mayores de 15 años usan el euskera un 7 % más que en 1991). Todo ello, gracias al esfuerzo realizado tanto por la socie-dad como por las instituciones. El crecimiento se ha dado, principalmente, en el campo for-mal.
7. Disponer de un marco jurídico adecuado ha sido, entre otros factores, primordial para la consecución del crecimiento del euskera produ-cido en estos 30 años. Las principales bases de dicho marco jurídico residen, por una parte, en el derecho de los ciudadanos y las ciudadanas a conocer y usar el euskera; y por otra, la obli-gación a la que se someten las administraci-ones públicas de garantizar dicho derecho. El Parlamento Vasco considera que la Ley del Euskera ha sido el instrumento que ha posibili-tado todo ello y que, por ende, resulta una herramienta adecuada y válida para el futuro.
8. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe:
- Reforzando la transversalidad de la polí-tica lingüística.
  - Respetando la pluralidad de la sociedad vasca.
  - Garantizando la libertad de elección de la ciudadanía en todos los ámbitos de la vida (laboral, social, escolar o familiar), a fin de que, respetando las diferentes realidades sociolingüísticas, nadie sufra ningún tipo de discriminación por razón de la lengua.
9. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, de la mano de Hakoba, siga posibilitando la colaboración con las diputaciones forales y



- euskara biziberritzeko denen ahaleginek ahalik eta emaitzarik eraginkorrenak eman ditzaten.
- Era berean, Eusko Legebiltzarrak gaitzetsi egiten ditu hizkuntza arloko inposizio-politikak, eta administrazio publikoei eskatzen die:
- Faboratu dezatela euskarazko harremanak eremu guztietan modu progresiboan gehitzea, euskararen erabilera soziala, herritarren aukera-askatasuna errespetatuz.
  - Jarrai dezatela bermatzen elebitasuna Administrazioarekiko harremanetan, erraztuz pertsona orok nahieran erabili ahal izatea euskara edo gaztelania erakunde publikoekiko harremanetan.
  - Sakondu dezatela "Hizkuntza Eskakizunen Azterketa Kualitatiboa 2013" izeneko dokumentuaz abiatutako azterketan.
10. Eusko Legebiltzarrak aitortu egiten dio Euskararen Aholku Batzordeari eratu zenetik gaur arte egindako lan eskerga, eta aurrerantzean ere bide horretan jarrai dezan eskatzen dio.
11. Eusko Legebiltzarrak berresten du martxoaren 28an administrazio-kontratu publikoetako gutun-azaletan eta berariazko klausula administrazioetako hizkuntza-baldintzak jartzeari buruz Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordeak onartutako akordioa.
12. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio helduen euskalduntzea sendotzen jarrai dezan, indar berezia jarri euskaraz ez dakien biztanleriaren ahalik eta zatirik handienak euskarazko oinarritzeko gaitasun bat behintzat eskura dezan eta helduen euskalduntze-alfabetatzea jardura estrategikoa izanik, doakotasunaren bidean urratsak egiten jarrai dezan.
13. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio euskararen erabilera gizarte esparru desberdinetan bultzatzen jarrai dezan, batez ere gazteekin loturiko eremuetan eta euskararen hitzen elkarteak sendotzeko eta kohesioa handiagotzeko ekimenak bultzatuz.
14. EITB euskararen normalizaziorako tresna denez, euskara eta euskarazko kultura ardatz hartuta, proiektu erakargarriak eskaini behar ditu.
15. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, ESEPe jasotakoari jarraiki, herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldune-
- los ayuntamientos para que los esfuerzos de todos para el impulso del euskera den los resultados más eficaces posible.
- Asimismo, el Parlamento Vasco rechaza las políticas de imposición en materia lingüística, e insta a las administraciones públicas a que:
- Favorezcan el aumento progresivo de las relaciones en euskera en todos los ámbitos, el uso social del euskera, respetando la libertad de elección de la ciudadanía.
  - Continúen garantizando el bilingüismo en las relaciones con la Administración, facilitando que toda persona pueda optar por el uso del euskera o del castellano en las relaciones con las instituciones públicas.
  - Profundicen en el estudio emprendido con la documentación denominada "Examen Cualitativo sobre Perfiles Lingüísticos 2013".
10. El Parlamento Vasco reconoce la enorme labor realizada por el Consejo Asesor del Euskera desde que se creó hasta la actualidad, y le insta a que, de cara al futuro, siga en esa misma senda.
11. El Parlamento Vasco se reafirma en el acuerdo adoptado el pasado 28 de marzo en la Comisión de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes de esta Cámara sobre el establecimiento de requisitos lingüísticos en las carátulas y cláusulas administrativas específicas de los contratos administrativos públicos.
12. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe reforzando la euskaldunización de adultos, en especial para que la mayor parte posible de la población que no sabe euskera logre al menos una competencia básica, y a que continúe dando pasos en la senda de la gratuidad, por cuanto la euskaldunización/alfabetización de adultos constituye una actuación estratégica.
13. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que continúe impulsando el uso del euskera en los diferentes ámbitos sociales, sobre todo en los ámbitos relacionados con la juventud, impulsando iniciativas para fortalecer la comunidad de vascohablante y aumentar la cohesión.
14. Siendo EITB un instrumento para la normalización del euskera, ha de ofrecer proyectos atractivos, tomando como eje la cultura en euskera.
15. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, a tenor de lo recogido en el ESEP y siendo los espacios geográficos más euskaldunes los

- nak diren gune geografikoetan, euskara udalerriko gizarte-bizitza eta herritarren arteko harremanetarako ohiko hizkuntza funtzionala izan dadin ekimenak susta ditzan.
16. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, euskara-gaitasuna edo ezagutza euskal gizarte osoan progresiboki hedatzen jarraitzeko bidean, euskara ikasteko etorkinek ere dituzten aukerak areagotu ditzan.
17. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskararen Legean eta bere garapeneko gainerako lege-araudian herritarrei aitortutako eskubideak betetzen joan daitezzen urrats eraginkorrek ematen jarrai dezan.
18. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala informazio eta komunikazioaren teknologietan euskarazko aplikazioak, erremintak eta softwarearen garapena sustatzen eta errazten hizkuntza hautatu ahal izatea administrazio publikoen erreminta eta aplikazio informatikoetan, arreta berezia jarriz gazteek gehien erabiltzen dituzten euskarrietan (sakeleko telefonoak, tabletak eta abar).
- Horrela, Internet euskara-edukiekin elikatzea eskatzen du, hezkuntzaren osagarri, eta aisiarekin zerikusia duten eduki entziklopedikoei lehentasuna emanez.
- Era berean, euskarazko hedabideak estrategikoak izanik, euskararen normalizaziorako ahal den neurrian diru-laguntza egonkortzeko aukera aztertuko da.
19. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio euskararen lurraldeetako (EAE, Nafarroa eta Iparraldea) herri-erakundeekin euskararen erabilera sustatzeko elkarlana bultzatu dezan, eremu juridiko-administratibo bakoitzeko eskumenak errespetatuz.
20. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio euskararen sustapena eta bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasun soziala eta bizikidetzaren harmoniatsua helburu izango dituen hizkuntza-politika garatu dezan, ahalik eta adostasun sozial eta politikorik zabalenean oinarrituta, EAEko herritarrek osotasunean eta baldintza berdinetan baliatu ahal izan dezaten bi hizkuntzetako edozein askatasunez erabiltzeko eskubidea.
21. Eusko Legebiltzarrak aldarrikatzen du ondoko lau printzipioetan oinarritutako hezkuntza-sistema:
- Irakaskuntza hizkuntza ofizial bietan jaso eta irakaskuntzako oinarritzeko hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
- que cuentan con mayoría de personas bilingües, promocióne iniciativas para que el euskera sea la lengua funcional habitual en la vida social del municipio y para las relaciones entre sus habitantes.
16. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en aras al progresivo despliegue de la capacitación lingüística del euskera en toda la sociedad, incremente las posibilidades de los inmigrantes para el aprendizaje del euskera.
17. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a seguir dando pasos eficaces para el cumplimiento de los derechos reconocidos a los ciudadanos y ciudadanas en la Ley del Euskera, así como en el resto de la normativa legal que la desarrolla.
18. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a continuar fomentando el desarrollo de aplicaciones, herramientas y software en euskera en las tecnologías de información y comunicación y facilitando la elección del idioma en las herramientas y aplicaciones informáticas de las administraciones públicas, con especial atención a los soportes más utilizados por los jóvenes (teléfonos móviles, tabletas etc.).
- Así, se insta a alimentar Internet con contenidos en euskera dando prioridad a los complementos educativos y a los contenidos enciclopédicos relacionados con el ocio.
- Asimismo, teniendo en cuenta el carácter estratégico de los medios de comunicación en euskera para la normalización del euskera, se estudiará la posibilidad de estabilizar en la medida de lo posible su subvención
19. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, junto a las instituciones de los territorios del euskera (CAV, Navarra e Iparralde), impulse la colaboración al objeto de promocionar el uso del euskera, desde el respeto a los diferentes ámbitos jurídico-administrativos.
20. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que desarrolle una política lingüística cuyo objetivo sea la promoción del euskera y la igualdad social y la convivencia armoniosa de las dos lenguas oficiales, sobre la base de un consenso social y político lo más amplio posible, para que la ciudadanía de la CAV pueda ejercer en su integridad y en igualdad de condiciones el derecho a utilizar libremente cualquiera de las dos lenguas.
21. El Parlamento Vasco reivindica un sistema educativo basado en los siguientes cuatro principios:
- El derecho a recibir la enseñanza en las dos lenguas oficiales y a elegir la lengua básica de enseñanza.



- Irakaskuntzakotzat aukeratu ez den hizkuntza ofiziala derrigorrez irakastea.
- Derrigorrezko hezkuntza bukatzean, bi hizkuntza ofizialen behar besteko ezagutza praktikoa lortzea.
- Euskararen erabilera normalizatua ikasteetako jarduera guztian.

Eta, zentzu berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berma diezazkiela familiei hezkuntzan hizkuntza hautatzeko askatasunari eta bi hizkuntza ofizialen behar besteko jakite praktikoari dagokienez.

22. Eusko Legebiltzarrak proposatzen du euskararen erabilera bultzatzea enpresen eta merkataritzaren eremuan, betiere errespetatuz herritarrei orokorrean eta kontsumitzaileei bereziki aitortutako hizkuntza eskubideak. Hori guztia sustapen-politikak garatuz egingo da.

- La enseñanza obligatoria de la lengua oficial que no haya sido elegida como vehicular.
- El objetivo de alcanzar un conocimiento práctico suficiente de ambas lenguas oficiales al finalizar la educación obligatoria.
- El uso normalizado del euskera en todas las actividades de los centros educativos.

Y, en el mismo sentido, insta al Gobierno Vasco a que se los garantice a las familias en relación con la libertad de elección de la lengua en la educación y el conocimiento práctico suficiente de las dos lenguas oficiales.

22. El Parlamento Vasco propone impulsar la utilización del euskera en el ámbito empresarial y comercial, respetando siempre los derechos lingüísticos reconocidos a la ciudadanía en general y a las personas consumidoras en particular. Todo ello se llevará a cabo desarrollando políticas de promoción.

\*\*\*

\*\*\*

## PLANAK, TXOSTENAK ETA KOMUNIKAZIOAK PLANES, INFORMES Y COMUNICACIONES

*Plan Interinstitucional de Apoyo a la Actividad Emprendedora* (Propuestas de resolución presentadas)  
(10/10.08.00.0005)

La Mesa, en su reunión del día 29 de abril de 2014, acuerda admitir a trámite las siguientes propuestas de resolución presentadas por los distintos grupos parlamentarios, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

### PROPUESTAS DE RESOLUCIÓN DEL GRUPO PARLAMENTARIO SOCIALISTAS VASCOS

#### Justificación

El Plan Interinstitucional de Apoyo a la Actividad Emprendedora responde a la necesidad de fomentar de forma efectiva esa actividad como motor de desarrollo de nuestro país. Sin embargo, en su contenido no introduce el salto cualitativo que la crisis que atravesamos hace imprescindible, ni en la definición ni en las actuaciones del modelo de emprendimiento.

Por el contrario, este plan conforma su contenido a partir de actuaciones y programas ya en vigor

*Ekintzailletza Jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko Plana* (Aurkeztutako ebazpen-proposamenak)  
(10/10.08.00.0005)

Mahaiak, 2014ko apirilaren 29ko bileran, erabaki du tramitatzeko onartzea legebiltzar-taldeek aurkeztutako ondoko ebazpen-proposamenak, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

### EUSKAL SOZIALISTAK LEGEBILTZAR TALDEAREN EBAZPEN PROPOSAMENAK

#### Arrazoiak

Ekintzailletza Jarduerari Laguntzeko Erakunde arteko Planaren arrazoiak jarduera hori modu eraginkorrean sustatu behar izatea da gure herriaren garapen-motorra izan dadin. Hala ere, haren edukian ez du sartu bizi dugun krisiak ezinbesteko egiten duen jauzi kualitatiboa, ez ekintzailletza-ereduaren definizioan ez haren jardueretan.

Aldiz, plan horren edukia lehenago abiarazi diren ekintza eta programen inguruan antolatuta da,

